

AKTIBITATE ZEHATZAK

Gure aplikazioa aurrera eramateko orduan argi izan genuen gure pazienteekiko hurbiltasuna izan nahi genuela. Beraz, hori lortzeko asmoz aktibitate ezberdinak egitea bururatu zitzaizkigun.

Alde batetik, bideodeiak egingo dira psikologo-paziente artean. Bertan, elkarrizketa bat aurrera eramango dute modu errez batean. Gainera, haien arteko konfiantza sortzeko edota sendotzeko baliogarria izango da.

Beste alde batetik, hilean behin “punto de encuentro” deitzen diogun aktibitatea egingo dugu, hau da, pazienteak bere psikologoarekin aurrez aurreko elkarrizketa izateko aukera izango du. Betiere modu seguru batean. Hauek eman daitezke binaka edota taldeka.

Aurrerapausuak lortzeko ezinbestekoa izango da pazienteak hobetzeko gogoak erakustea, motibazioa izatea eta baita entzuteko gogoak.

Aktibitateak eguneratuta izateko, planifikazioa ezinbestekoa izango da. Beraz, behin psikologo-pazientearen arteko harremana hasita datak eta orduak antolatzen hasiko gara.